

tti-pi-ttapa

198. zenbakia • 1997ko urtarrilak 30 • XVI. urtea



ERREKAKO KARRAMARROAK

Kasik desagertua dago hemen bertakoa den espeziea

Animalia espezie arrotzak bereak ez diren inguruetan sartzeak, ustegabeko kalteak eragin ditzake. Eta horixe bera gertatu zen duela hogeitau urte inguru, gure erreketako karramarroekin. Amerikatik hango espezieak ekarri zituzten honat, eta hemen genituenak haiek ekarritako gaitzarekin hiltzen hasi ziren.

4

6 Iritzia: Prozesionariaren kontrako tratamendua

Hurrengo hilabeteotan 1.500 oiha hektarea intsektizidaz lainoztatuko dira Nafarroako mendialdean.

27 Kultura: Ihauterien aroak herri gehienak kurrituko ditu

Zakozarrak, Joaldunak, Hartzak, Mozorroak... herriz-herri.


TTIPI-TTAPA honekin batera:

Etiket Plazara

IKAko euskaltegiek argitaratzen duten aldizkari didaktikoa.



Patxi IRIARTE Iruriko argazkilaria



"Nere pasioa eta afizioa da urpeko argazkia, bertzea berriz ofizioa"

1988an hasi zen Patxi Iriarte urpean igeri egiten. Lau urte berandua go, itsasoak bere barnean gordetzen dituen irudi ederrak argazki makinarekin edo bideoarekin bildu zezakeela gogoratu

'Scuba-96' urpeko argazkilaritza saria eskuratu berri du hemen ageri den argazkiarekin

zitzaion. Geroztik, Cuba, Colombia, Maldibak, Irlak,

Egipto eta bertze herrialdeetako itsasotako murgildu eta erretratoak ateratzen ditu, bere ofizioa eta afizioa uztartuz. Eskuratu berria duen saria, lan honen emaitza da.

3

ZILO BOLAK EGITEKO PLASTIKOA



- ➡ Belarra ziloratzeko erabiltzen den plastikoetan liderrak
- ➡ Koloreak: xuria, marroia, berdea eta beltza. Hiru kapako plastikoa
- ➡ 9 urteko esperientzia
- ➡ Kalidade eta prezio arteko erlaziorik hoberena

Plastiko luzagarria belarra bolatan sartzeko

Ez zaitzatela ziririk sartu imitazioaren batekin

Kontutan hartu zenbat belar kilo arriskatzan dituzun

Zilo bolak noiz egin behar diren, zenbat buelta eman, plastikoa ongi tinkatzeko nola egin, non eta zein posturatan pilatu behar diren bolak, zein zabalerako plastikoa den hoberena (500 mm. edo 750 mm.) eta bertze edozein duda izanez gero, **eskatu informazioa. Denok ikasiko dugu zerbait gehiago!!**



**Eskariak berehala
atenditzen ditugu
Galdetu prezioak
konpromisorik gabe**



AROZ - BERRI, S.A.

NEKAZAL TRESNERIA

N-121-B errepeidea, 54. km.a • © 581021-580258 • Faxe 452103 • 31730 IRURITA



**ATE
KORREDERAK**

zimeldi
ARMARIO ENPOTRATUAK
AKABERAK

☎ 387017
ETXALAR

- ➡ Kristala.
- ➡ Ispilua.
- ➡ Melamina.
- ➡ Decape.
- ➡ Persianilla.
- ➡ Egur desberdinetan, bernizatuak.
- ➡ Egur lakatua.
- ➡ Bezeroak jarritako materialean: (egurra, papera, tela...).

Ateak eta barneko aldeak bakoitza bere aldetik instalatzen ahal dira

Ate korrederek eta plegableak

Ate korrederek SLIDE sistema garbitzailea dute eta ez dira trabatzen.

Kalitate hobereneko armairuak eskuratzen ahal dituzu kalitate-prezio orekarik onenean



BARNEAK
Edozein
akaberatan.

- ➡ **1,5 zabalerako armairu osoa, ate korrederekin..... 1 12.000* Ptatik.**
- ➡ **1,8 zabalerako armairu osoa, ate korrederekin..... 1 26.000* Ptatik.**

* BEZa barne

DATUAK.....

❖ Patxi Iriarte argazkilariak Scuba-96 urpeko argazki-larritza saria irabazi berria du. Buzeoan espezialdutako aldizkari espainiar batek ematen duen sari nagusia da.

❖ Doneztebeko Zaldia argazki dendan aritzen da lanean.

❖ Urpeko kirola Nafarroan gero eta gehiago indartzen ari den afizioa dela dio: arabera, Gipuzkoan baino jende gehiago dago federatuta.

❖ Eskualdeko bertze zenbait lagun bezala, Hondarribiako Scuba Doo elkarteak kide da.

❖ Instruktor titulua ere badi, «batez ere bidaietan askatasun gehixea-go» izateko.

TESTUA:

AITOR AROZENA

ARGAZKIA:

PATXI IRIARTEK UTZIA

👉 **Patxi IRIARTE IPARREA** Iruriko argazkilaria

"Nere pasioa eta afizioa da urpeko argazkia, bertzea berriz ofizioa"

SARI GARRANTZITSU BAT IRABAZI BERRI DUZU...

Scuba aldizkariak antolatutako saria da, lau sailtan banatua: argazkia, historia biologikoa, bideoa eta narrazio laburra. Argazkian nik irabazi nuen eta urpean norabidea jakiteko ordenagailua eta hatsa hartzeko erregulatzailea jaso nituen sarritzat.

NOIZTIK ARI ZARA URPEAN ARGAZKIAN ATERATZEN?


1988an urpean igeri egiten hasi nintzen, Isabel Ibarrolarekin batera. Geroztik, Patxi Baldanta elizondarra, Jon Mikel zubietarra eta Txus Migeltorena doneztebarra... hasiak dira. Argazkiak egiten, berriz, 1992an hasin nintzen. Lehenik Maria la Gordara (Cuba) gan ginen, 1993an Maldivas irletara eta hortik Egiptora, Itsas Gorria.

ARGAZKI HAUEK ATERATZEKO ZEIN IZAN DA EZAGUTU DUZUN LEKURIK POLITENA?

Koloretan-eta, Itsas Gorria da politena neretzako, baina ez dauka arrain haundi aunitz. Igual, sobera masifikatutako kirola da eta izitu egiten dira.

...ETA ARRISKITSUENA?

Pacifico aldean, Er-tamerikako sartaldean, Costa Rica, Nicaragua-



«Urpean igeri eta argazkiak egitea kirol polita eta lasaia da»

tik hasi eta Panamaraino. Urak hemen bezalakoak dira baina animale haundia aise gehiago dabil, tiburoiak eta horrelakoak...

ZEIN EZBERDINTASUN NAGUSI DAUDE ARGAZKI ARRUNTA ETA URPEKOAREN ARTEAN?


Ur azpian nahitaez flasha eduki behar du-

zu, hamar metrotik behera kolore guztiak urdinak ikusten baitira. Distantziak ere kalkulatu behar dira, flasharen indarraren menpe zaudelako. Lau edo bortsu apartu eraman behar dituzu, bat ahoan, bertze bana sakontasuna eta gelditzen zaizun haizea neurtzeko... Gero animalien hurbildu behar da eta hatsarekin izitzen dira. Hemen inguruan, materiale sobera dugu itsasoak, hori da gaixakeriarik haundiena. Urpeko argazkia za-

letasuna eta pasioa da neretzat, bertzea ofizioa. BIDEOAK ERE GRABATZEN DITUZU?

Bai, Hondarribiarako publizitate bideoa prestatu ginuen eta orain, Migeltxo Pruaño elizondarrarekin batera bertze bat egin nahi dugu itsasoko sagarroiaren inguruan. Itxuraz ez dira mugitzen baina, bere lasitasunean zer bizi klase dute erakutsi nahi dugu. Honekin Iruñeko bideo dokumental sarketan parte hartu nahi dugu.

► *"Hemen inguruan materiale aunitz du itsasoak. Pixkan-pixkan egoera hobetzen ari da, baina zikinak gara. Gainera, arrantza sobera egitearen ondorioak nabari dira."*



Amerikar «karramarro gorriak» eta «seinale» karramarroak ekarri zituzten hemengo errekatara, eta ondorioz, haiek ekarritako gaitz batek jota ia guztiz desagertu zen gure erreketan lehendik zegoena.

Kanpotarrak ekarri eta hemengoak hondatu

*Noizbait gure erreka
karramarroz beteta izan zirela
jakiteak bat baino gehiago
harrituta utziko du seguraski.
Hala zen bada. Izan ere,
gaztetxo eta ez hain gazteen
udako afizio haundienetakoa
zen erreka karramarroak
harrapatzea. Baina 80. hamar-
kadan bertze karramarro
moeta batzuek gaitz larri
batekin kutsatu zuten
bertakoa, denbora guttian
desagertaraziz. Gaurko
egunean karramarro banaka
batzuk gelditzen direla jakin
badakigun arren, desagertutzat
eman ditugu.*

TESTUA:
ASIER GOGORZA
ARGAZKIAK:
ARTXIBOA

adituen uste-
tan akats
haundia da
bertako espe-
zieen lekuan
kanpokoak
sartu nahi izatea, horrek in-
gurugiroaren baitan alda-
ketak sortzen baititu, gero-
ra desoreka larriak bihur-

tzen direnak. Bertako ka-
rramarroen aferarekin ger-
tatu denak hori frogatu ber-
terik ez du egiten.

Desagertzearen arrazoiak

Duela hamabortz bat urte,
Ipar Ameriketatik datorren
onddo moeta batek, «afa-
nomikosia» edo karrama-

roen izurritea deitutakoa
sortu zuen. Nafarroan 1979.
urtean somatu ziren gaitza-
ren lehenbiziko arrastoak.
‘Karramarro gorri’ izeneko
espezia, amerikarra, berta-
ko karramarroaren bizito-
kietan zabaltzen hasi ziren,
helburu komertzialak tarte-
ko. Karramarro hau gai-
tzaren eramale zela ohartu

zirenean, debekatu egin zu-
ten, baina dagoeneko plaga
itxura hartzen hasia zen, ber-
tako karramarroa ia guztiz
desagertaraziz.
Honen harian erran behar
da azken urteetan Euskal
Herrian eta zehazkiago Na-
farroako erreketan egin di-
ren birpopulaketa saialdiak
«seinale» karramarroarekin



Gaur egun debekatua dago erreka karramarroak arrantzatzea. Lehen, ohitura zen karramarroak harrapatzea, gehienetan eskuz.

egin direla, karramarro gorria alde batera utzita. Baina K. Soderhall, R. Ajaxon eta M. Person suediar zientzilariek frogatu zuten «seinale» karramarroa ere afanomikosiaren eramale dela, eta beraz, birpopulaketa hoiek hagitz kaltegarriak izan daitezkeela bertako espeziearentzat. Honetaz gain, bertako karramarroaren ia-desagertzea eragin duten kausa naturalak ere badaude: urtean zehar ematen diren lehorten latzak, erreka bazterren eta urpeko lurren gorabehera nabarmenak, ureko begetazioaren aldaketak... eta batez ere azken urteetan urek kausitu duten degradazioa, espeziearen desagertzea eragin duten faktoreak izan dira. Azkenik, ezkutuko arrantzaleei errua botatzen dienik ere bada, gelditzen ziren karramarro talde urriei erasotzeagatik.

Egungo egoera

Gaia adituak direnek segurtatzen dute oraindik ez dela guztiz desagertu

bertako karramarroa, mendiko zenbait erreka toetan eta bertzelako ur isolatueta oraindik ere aurki ditzakegu eta. Gure zonaldeko erreketan oraindik bertako karramarroak irauten du, baina hagitz kopuru tikitana. Nafarroako Gobernuaren Ingurugiro Departamentuko Juan Carlos Vasconesek jakinarazi digunez, Ezkurra eta Baztan errekaen zati konkrituetan eta baita Leizaran bailarako erreka batzuetan ere, bertako karramarroak ikusi izan dira berriki ere. Urteik urtera, hala ere, gutiago dira. Karramarroen desagertzeak ondorioak ekarri ditu erreketako uraren kalitatean, karramarroak bertan pila-tzen diren haragi ustelak jaten baitzituen.

Birpopulazio prozesua

Bertako karramarroa berreskuratzeko, bere arrantza debekatzeaz aparte ere bertze neurri batzuk hartu ditu Nafarroako Gobernuak. Desagertzeko arriskuan da-

goen espezie gisa izendatua izan zen Nafarroan (144/1996 foru dekretua), eta horren ondorioz, Berreskuratze Plan zehatz bat landu zuten (143/1996 foru dekretua). Foru dekretu honen arabera, babes berezia eskeini behar zaie bertako karramarroen bizilekuei, edo hauentzako bizi-toki aproposak bihurtu daitezkeen eremuak. Erabe-rean, kanpoko karramarro espezieen zaintze eta kudeaketa berezia egin beharko litzateke, bertze foru dekretu batek agintzen duenez.

Bertako karramarroaren berreskuratze plana burutzeko, Ingurugiro Departamentuak biologo baten asistentzia teknikoa izanen du, eta baita afanomikosiaren adituak diren zientzilaria talde batena ere. Gure zonaldean bederen, ez du iduri epe laburrean bertako karramarroaren egoera larriak hobera egingen duenik, hasi diren errepoblazio planek ez baitute eskualdeko errekarik kontutan hartzen. ■

«Gaur egun arras karramarro guti gelditzen da, eta ez dut erranen non»



Antero ETXANDI

Elizondoko
Ehiztari eta
Arrantzale
elkarteko
lehendakaria

Ba al dago bertako karramarroen arrastorik Baztanen?

Garai batean karramarro dexente zegoen gure erreketan, baina gaur egun arras guti gelditzen dira. Ez dut erranen non, badaezpada ere.

Gaur egun debekatua dago, baina lehen ohitura zen karramarro arrantzan ibiltzea, zu ere ibilia zara hortan?

Bai, gazteago ginelarik udan-eta, errekek goitik beheiti hartu eta eskuz arrantzatzen genituen, gero eltzariarekin nahasita jateko.


Zergatik desagertu direla uste duzu?

Alde batetik urak ez daude lehen bezain garbiak eta xaboi eta lixiba sobera bota da erreketan. Horretaz aparte, karramarro amerikarrek ekarri zuten gaitzak hemengoak desagertarazi egin ditu. Orain hasi dira diputaziotik zenbait errepoblazio egiten, Ultzama aldeko Mediano errekan eta Eugiko pantanoan ere bai nik dakidala. Baztanaldean eta oraindik deus ere ez.

Gure zonaldeko erreketara karramarroak itzultzea posible ote da?

Nik uste dut ez dela batere zaila. Kontua izanen zen erreketan behar den lekuan arraultziak uztea eta epe laburrean errepoblazio bat emanen zen.

AFANOMIKOSIAREN ZABALTZE PROZESUA IBERIAR PENINTSULAN



LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 6.300 ALE

Argitaratzailea: ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza, 1

31780 BERA

Tfnoa: 63 11 88

Faxa: 63 12 91

Internet:

<http://www.encomix.es/ttipi-ttapa>

e-mail:

ttipi@encomix.es

e-mail:

ttipi@mail.sendanet.es

uzendaria: Joxemanuel Iri-
oi. **Publizitatea:** Miren Kar-
nele Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor
Arozena, Asier Gogorza, Joxe-
manuel Irigoien. **Administrazioa:**
maia Goia. **Erredakzio taldea:**
Pello Apezetxea, Juainas Paul,
Kristina Boan, Bittori Telletxea.
erriemaileak: Joseba Azpiroz,
Esteban Arozena, Juana Mari
Aizaz, Ainhoa Mutuberria, Iban
Gasi, Txema Aldabe, Patxi Otxan-
Arozena, Ixabel Maia, Josune Etxe-
este, Pablo Mendiburu, Joseba
Aparabide, Alizia Olaizola, Mar-
Ari Etxenike, Koro Irazoki, Mi-
el Gerendiain, Jacqueline, Eli-
abet Iturria, Garbiñe Maiz, Os-
ar Txoperena, Pello Apezetxea,
Aitor Arozena, Kristina Boan.
olaboratzaileak: EHNE Nafa-
Aroa, Mikel Bezunartea, Joxe Ja-
ier Etxeberria...

primategia: Graficas Ona.

tipi-ttapa ez du bere gain har-
zen derrigorrez, aldizkarian adie-
azitako erranen eta eritzien eran-
tuzkizunik.

arakunde Laguntzaileak: Be-
a, Leiza, Goizueta, Areso, Baz-
an, Urdazubi, Zugarramurdi eta
arako udalak, Bortzirietako Eus-
ara Mankomunitatea, Malerre-
ako Zerbitzu Mankomunitatea,
Zugarramurdiko Akelarre Elkar-
ea...



**Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du**

GAURKOTASUNEKO GAIA

Prozesionariaren kontrako tratamendua gure mendietan

Pinuan ez da gailendu baina orain haritzan atera da arra



Lazaro APEZETXEA
Goizueta. Mendi zineg.

Orain arte pinua-
ri egin zaio trata-
mendua, baina jo-

an deneko 2-3 urtetan haritzari
ere ikaragarritzko arra formatu
zaio. Primaderan hostoa ateratz-
zen du baina arrak atakatzan
dio eta, indarra hartu behar due-
nean, hostorik gabe gelditzen
da. Abuztuan berriz hostoa ater-
ratzen zaio, baina gutxi. Ez badu-
te laister tratatzen, pixkan-pix-
kan hori ere ihartzen joanen da.
Pinuan, azkenekoz tratatu ze-
netik nahiko ongi dago, arra ez
da gailendu behintzat. Momentu
bat izan zen mendian ezin zite-
keela lanik egin, mutilak ikara-
tuak zeuden: arra ukitu eta
gaizkitzen ziren, dena hazitzen
zitzaien. Prozesionariak arbo-
laren defentsak kentzen ditu eta
gero, saltzerakoan, ez du lau sos
balio. Kolperik haundiena jo zue-
nean, zenbait mendi 15-20 mi-
lioitan saldu beharrean 5ean sal-
du ziren, arbolak ihartu baitzi-
ren. Orain ez da horrenbeste
ikusten, baina tratamendua ez
bada egiten herria ere janen lu-
kete horiek. Nafar Gobernuak
dioenez, gainera, tratamenduak
ez du aparteko kalterik sortzen,
aziendetan ez dugu deus so-
matu.

Tratamenduak intsektu babestuak ere suntsitzen ditu, ez da selektiboa



Iñigo PETRI
Gurelur taldekoka

Izurrite bat bada-
go tratamendua
beharrezkoa izan

daiteke, baina guretzat printzi-
pioz gaizki dago. Hainbat urte-
tan egin dute eta ez du emaitza
positiborik eman. Tratamendua
ez da selektiboa eta intsektu ba-
bestuak ere suntsitzen ditu. Era-
biltzen dituzten intsektizidak
oso kutsakorrek dira, gainera.
Airetik egiten denez, intsektizi-
dak gasoleoan disolbatua joan
behar du eta horrek ura, batez
ere, kutsatzen du eta ondoko eta
karakoletan eragiten du. Alter-
natiba bezala, borroka biologi-
koa proposatzen dugu. Balear
irletan, zuhaitzetan feromonaz
-produktu ia naturala- igurtzi-
tako kutxatila erabili dituzte.
Produktu honek prozesionaria
tximeleta emearen usaina izan-
ten du eta arrak sartzen direne-
an, bertan hil eta ez dute ugai-
tzerik. Honela kontrolatu dute
izurritea. Prozesionaria ez da
guztiz desagertu, txorien elika-
gaia izanik ezin baita erabatsun-
tsitu, baina ongi kontrolatu du-
te. Hemen, ordea, erabili diren
metodoekin ez da honelakorik
lortu, nahai ikusten dira pol-
tsak. Beraz, garbi dago izurri-
tea ezin dela nolahi suntsitu.

Tratamendua noiz eta nola egin espezialisten esku utzi behar da



Jesus GARITAZELAIA
Basoetan aditua

Prozesionaria izu-
rrite arrunta da pi-
nuen artean, gri-

pea gizakiengan bezalatsu. Era-
bat deuseztea ezinezkoa da eta
desagertarazteko saioak hagitz
garestiak izateaz gain, ez dira
eraginkorrak. Baina bi arra-
zoiengatik merezi du aurre egi-
tea: gizakien (eta animalia auni-
tzen) osasunarengan eragiten
duelako eta, eraso gogorren ka-
suan, produkzioa murriztu eta
zuhaitzak ahultzen dituelako,
bertze eritasunak hartu eta hil-
tzeke arriskua sortuz. Kasu
hauetan, onena intsektu hauen
populazioa maila baxuan man-
tentzea da, beraien eritasun pro-
pioak eta txoriek kontrolatu de-
zaten. Hau da merkeena, gar-
biena eta zentzuzkoena. Meka-
nismo natural hauek nahiko ez
direnean zerbait egin behar da.
Gaur egun ez dago mirari-kon-
ponbiderik. Borroka teknikan
aunitz aurreratu bada ere, ez da-
go %100ean eraginkorra eta
%100ean kalterik egiten ez duen
produkturik. Zer produktu eta
nola erabili erabakitzea zaila da
eta espezialisten esku utzi be-
har da. Urte batetik bertzerera eta
zona batetik bertzerera ezin da tra-
tamendu berdina egin.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Egunero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.

• Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 74 04

IRUÑEA:

• Bulego Zentralean: ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 17 55 40

Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitorpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta

IRAKURLEAK MINTZO

Xele Etxeberriari:

La Voz de Navarra jaso nuen eta zure artikulua irakurritakoan zera pentsatu nuen, ona dela bere burua nazionalistatzat daukan alderdi bat Goizuetako herrian finkatu nahi izatea botoak lortzeaz gain baita lan egiteko ere, zeren eta azkenean urteotan, nahiz eta zuk hori ez adierazi, botoen igoera nabarmenena eskuin espainolista bakarrik izan du. Baina herriko eta propaganda egiten ari zaren alderdiari buruz balorazioa egiterakoan gauza asko baztertu eta gorde egiten dituzu. Ez dakit ze urtetako botu kopuruak aipatzerakoan, bereizten dituzu eskuina eta PNV, eta gogoratzen dizut PNV Europako PPn sartuta dagoela, Aznarren PPrekin batera. Beste aldetik, HBk ezker alderdi gogortzat kalifikatzen duzunean, PNVkoa den Atutxa jaunataz eta bere menpe dauden ertzainek (edo zi-paioak deitu beharko nieke?) ekiten diotenean intsumisoen aurka, presoen senitar-teko gazte edo adinekoen aurka, 'Egin' itxi nahi izate-rakoan, etabar luze batetaz oroitzen naiz, eta hori bai dela gogor jokatzeko. Politika kontuak aipatzerakoan ez dituzu aipatzen Baldo, Luxiano, Mendiburu, edo 17. Egu-

berriak espetxean pasa di-tuen goizuetarra dugun Juan Migel, edo kartzelan egon-dako herritarrak, euskal pre-soen dispersioa diseinatu eta aurrera eramaterakoan zure alderdia ados zegoela, Lemoizko zentrala ez ezik, Euskal Herrian zentral nuklear gehiago egiteko ados zegoela, edo eta Gernikako estatutua onartzerakoan Na-farroa Euskal Herriatik kanpo utzi zenuela.

"HBren eskutik dagoela herriko mugimendu politiko guztia. Ohiturarik ez? (...) Laguntza beharra? (...) aipatzen duzunean herriko beste ohitura bat gogoraraziko dizut, hau da, batzuk lan egiten duten bitartean besteak kritikatu besterik ez dute egiten. Baina herriaren eta Euskal Herriaren alde benetan lan egiteko prest dagoena, alderdi batekin identifikatze-agatik izorratzeko gogoak eta ahaleginak alde batera utziaz, ongi etorria, zeren eta "nazionalista" edo abertzale baten benetako etsaia espainolista bat da.

I.E.
(GOIZUETA)

OHARRA:

Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatziz duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren fotokopia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, **ttipi-ttapak** bere esku izanen du horretarako eskubidea. Ez dira argitaratuko beren nortasuna agertzen ez digutenen iritzirik.

Al ataque!! = Erasorat Erasian

Egunero bezala, afaltzerakoan telebista martxan dut, hain zuzen Telepeich katean, Txikistaneko Telebista. Eta, bai harrigarria, erabiltzen duten hizkuntza ulertzen baitut, baita hitz batzuk solastu ere, eta hau dena inungo ikastarorik egin gabe. Eta horrela egunero-egunero, azkenean ohartu naiz Txikistaneko hizkuntza menderatzen dudala. Baina telebista itzali eta gero, nere burua Euskal Herrira itzultzen da behin eta berriro. Noski, Euskal Herrian euskaraz egitea normala da baina aunitzentzat ez hain erraza. Lehengo egun batean egin nuen proba bat, inori erran gabe; gaur arratsa osoa igaro behar diat euskaraz hitzeginez. Bi ordu pasatu baino lehen erdaraz eta txikistaniz ari nintzen solasean. Saiatu nintzen baina ez nuen nere helburua lortu. Eta rolo guzti hau zertarako; errate baterako, orduan, ohartu nintzela Erasian taldea bezalako zerbait behar nuela, guttienean kontzientzia hartzeko euskararengan. Lagun artean, lanean, bestetan, euskaraz jakin eta ez hitzegin. Honeri eman nahi dio erantzuna Erasian euskara gazte taldeak, hainbat ekitaldi eginez Bortzi-

riak mailan, euskararen erabilera indartzeko gazteen artean. Dagoeneko berratar, igantziar eta etxalartar batzuk biltzen gara. Aranztar eta lesakarrak ez dira oraindik guregana hurbildu. Behar bada euskaraz bizi dira eta ez dute gure beharrik, baina hala eta guztiz, proposatuko nien gazte guztiei nik egin nuen proba egiteko.

Arrats osoan euskaraz hitzeginen baduk zorionak, bestela soluzio bat: Erasian euskara gazte taldea.

AITONA PATXIKU



Arantzako eta Lesakako gazteei:

Irakurri duzue aintzineko gutuna? Ez! Ba irakurri... Hori irakurrita zer pentsatu duk? Aitona Patxiku ez da burutik ongi edota arrazoi apur bat badik. Dena dela, euskararen erabilera gehiago bultzatu eta indartu nahi baduzue etorri Erasian Gazte talderat. Urte berri on!

AITONA PATXIKU



**BERTIZKO LANDA-TURISMO
ZENTRUKO ARTISAUTZA DENDA
ERRENTAN EMATEKO DEIALDIA**

Informazioa: 592323
Eskaerak aurkezteko azken eguna:
Otsailaren 18a, eguerdiko 12etan

BERTIZKO PARTZUERGO TURISTIKOA



**Sukalde mobleen
fabrika**

Zuzeneko salmenta
Lesakako sarreran, Beko-Errota ondoan

Otsango auzoa • LESAKA • Tel.: 637850, Fax: 637928

✎ Antton ERKIZIA Leizatik

Administrazio publikoetan, mesedeak eta burruntzaliak



*Nafar Go-
bernuak di-
ru mordoa
«izkutatu»
du, PSOE
alkate da-
goen he-
rrien arte-*

an banatzeko, esan du

*FNMCKo zuzendariak. Herri guztietako beharrak metro berdinarekin neur-
tuak izanen dira, ez da be-
reizketarik egingen kolo-
reengatik, erantzun dio*

*Sanz lehendakari «be-
rriak».*

*Bat eta bestea entzun di-
tu nere auzoko amonak eta,
«sinisten dut, sinisten
dut» kantari joan da sies-
tara.*

*Mendialdeko herri gehie-
nok asko dakigu «clien-
telismo político» delako
hortaz. Erriberako edo-
zein herri koxkorrekin gu-*

*modukoak. Iruñeko Pala-
zioan egiten den banake-
ten eta Europatik ere egi-
ten denean.*

*Orain hori dena aldatuko
omen da.*

Zer egingen du Sanz-ek?
Nahita ere, ez dirudi nor-
tasun gehiegizko gizona,
Administrazio pulpotza-
rraren kobazuloan justi-
ziaren itxurak ere egite-
ko. Nahita ere, eta ez du
nahiko, eta gainera esku
lotuak dago. Sanz oso go-
gorra izanen da ahulekin,
baina oso ahula indartsuen
aurrean.

Zaila, oso zaila izanen zaie

*Administrazio Publikoak
darion kaka usaina gar-
bitzen, nahita ere.*

*Eta latzena zera da: ikasi
egin dugula denok «ka-
zoa» ezarri behar dela. He-
rri txikiok pasilloa egin
behar dugu Iruñako pala-
zioan. Edozein he-
rritarrek normala be-
zala eskatzen dizu
«fabore bat», jakinik
eskatzen duena «bur-
runtzalia» sartzea
dela. Eta ezetz erra-
ten diozunean, agu-
rra eta diosla ukatu-
ko dizu. Faboritis-
moaren kultura era-
bat hedatua dago,
goitik behera, eta ze-
harka ere. Fun-
tzionamendu norma eta
normala bezala hartua. Eta
guk, zer egin, Udaletxe
koxkor eta apal batean?*

*Herriko Etxearen atekaz ba-
ldu, haize garbia sar da-
din. Egiten den pixka hu-
ra ere, garbi egin. Gaur eta
hemen, GARBITASUNA
eskatu eta GARBITASU-
NA eman ez hasten da jus-
tizia soziala eta egunoro-
ko iraultza txikia.*

**Burruntzalia? Jende askok
normala bezala eskatzen
dizu «fabore» bat, eta ezez-
koa hartzean, mutur.
Administrazio Publikoa
gaitzak jota dago, eta
senda-botikak izen bat du:
«Garbitaxin» supositorioak.
egunoro eta xuxen.**

*reak konparatzea aski.
Leizaldean ere, Autobi-
dea famatua aitzaki, iku-
siak ditugu ederki aski no-
la, nori eta ze parametro
hartzen ziren kontutan,
pastela banatzeko orduan.
Diru publikoak (denen di-
ruak) herriz herri partitze-
rakoan izugarritzko fabo-
ritismoa dago. Izugarritz-
ko injustiziak. Salatu be-
harrekoak, nazkatze*

✎ Jon GORTARI Oronoztik

Nafarroaren nortasuna dela-ta



Nafarroari
b u r u z
hainbertze
gora-behe-
ra dabilki-
ten hortan,
bere norta-
suna dela-

*ta, Nafarroa Oinez, Ikas-
tolak, Euskara, ETB...,
badago, noski, nori eran-
tzun eta zeini arrazoia bo-
ta, ea konturatzen diren
herri zahar hontako bene-
tako seme-alaba sen-
titu hala ez aipatuta-
ko gauza eta izen-
buru horiekin.*

*Herri baten Historia
irabazleek idatzi izan
ohi dute beti. Hala
da filosofoen edo he-
rriko «adagio» ho-
rrek diona. Nafarroak be-
re Erresumaren indepen-
dentsia 1512an galdu
zuen, orduan ere bere nor-
tasunaren historia idazte-
ko eskubidea galdu zue-
larik, egiazko Historiare-
na, alegia. Ez behar hain-
bat alditan, baina bai ur-
tean behin bedenk jotzen
dugu Xabierko Frantzis-
ko Jaso Azpilikueta, ejen-
plutzat hartzen dugularik
Nafarroako egiazko his-
toria pixka bat astintzeko
eta oroitarazteko Xabier-
ko Jaso-Azpilikueta fa-
miliak, indarkeriarik ga-
be, baina bai bulartsu jo-
katu Erresumaren alde eta
independentsia defendat-
uz castellanoen kontra.
Migel Jaso, San Frantzis-
koren anaia, hemen hur-
bil, Amaiurko Gaztelu ho-
rren ondoan, eutsi eta ekin
zion bertze 40 nafarrekin
batera Nafarroaren norta-
suna, Nafarroaren inde-
pendentsia, nafarren es-
kuean egon zadin. Bai-*

*nan orduan ere, oraingo
gisa, «gobernante» kax-
karrak izaki eta gure aint-
zinako Nafarroa zahar hau
Castilla edo Espainiari en-
tregatua izan zen gure gait-
zerako. Gure nortasuna eta
eta gure libertateak eba-
tsiak, entregatuak izan zi-
ren, erran bezala, Casti-
llari, orduz geroztik des-
heredatuak gelditu gine-
larik. Gerra haren gogor-
tasunak eta hainbertzeko*

**Nafarroak bere Erresumaren
independentsia 1512an galdu
zuen, orduan ere bere norta-
sunaren Historia, egiazko
Historia, alegia, idazteko
eskubidea galdu zuelarik.**

*odol ixurtzeak, nazka eta
pena eman zion Xabierko
Frantzisko Jasori eta mi-
siolari bidea hartzeko era-
bakiari jarraitu zion. Ge-
rora, India urrutietako lu-
rraldeetan zebilela, «vas-
co de raza y navarro de
nación» aitortzen zen
munduaren aurrean.*

*Gure patroiz eta saindu
haundiaren sendimenduak
nafar abertzale baten sen-
dimenduak ziren, nahiz eta
gaurko Nafarroako poli-
tika gidariek oso bertze
aldeko propaganda egiten
duten. Horregaitik lehen
erran dut Herri baten His-
toria eskribitzen dutela ge-
rraren irabazleek, eta ez
egia predikatzen duten
Historiazaleek. Bai, Fran-
tzisko Xabier Jaso, nafa-
rra, mundu zabalean eza-
guna, gaizki ezagutua be-
re aberrian, gure Histo-
riaren lotsarako! Xabier-
ko Saindu haundia, bai
hotza zure ondorengoen
nortasuna!*

PRENTSATIK BILDUTAKOAK

11 GALDERA LABUR



Egunkaria (Ikasmendi)- 1997ko urtarila

«Maiz II beti gustatu izan zait. Ni bezala atzelaria zen eta orain gainerat nire botileroa da. Ez zen pilotari dotorea baina eskuinarekin izugarritzko segurtasuna zuen eta gainerat, beti pilota gozatu egiten zuen»

Inaxio ERRANDONEA
Alkaia gako pilotaria
Egunkaria 97-1-15

«Beran bezala, Lesakan, Baztanen eta Sakanan aintz aditzen da txistua, txistulariak egon badaude. Euskara

solasten den eremuetan ageri da batik bat txistua».

Iñaki IRAZOKI
Berako txistularia
Nafarkaria 97-1-24

«Denek hagitz ongi hartu gaituzte euren etxeetan, Txistu Egunaren ideia aintz gustatu zaielako. Erakusketarako argazkiak utzi dizkigute».

Eneritz MITXELENA
Berako txistularia
Nafarkaria 97-1-24

◆ **lnauterietan paratzeko moztorra?**

❖ Elkarrizketak egiten dituen kazetariena.

◆ **Doneztebeko giroa edo Iruñekoa?**

❖ Iruñean hemengo jendearekin.

◆ **Gazteen gauzarik hoberena eta txarrena?**

❖ Txarrena elkarrekiko errespetu falta; hoberena, solidaritatea.

◆ **Hobby bat?**

❖ Irakurtzea eta pelikula onak ikustea.

◆ **Mutilak, baserritarak edo hirikoak?**

❖ Berdin zait, nun eta inizatiba izaten duten.

◆ **Ile luzea edo motza?**

❖ Nik eramateko luzea, eta mutilek eramateko motza eta tintatua.

◆ **Mutilek belarritakoak eta sudurretakoak eramatea?**

❖ Ongi eta zibilborrean ere; nik ezpainetan ez nuke jarriko.

◆ **Modari kasu egiten diozu?**

❖ Nik nere moda, nahi duzuna eramatea (bakoitzaren estiloa).

◆ **Bizio bat?**

❖ Txokolatea.

◆ **Zein lanetan aritu nahiko zenuke?**

❖ Idazlea izan nahi nuke.

◆ **Nola ikusten duzu Doneztebe?**

❖ Gauza berdinak jende berdinak eginak, eta giro itxia.

◆ **Zuk egin galdera bat?**

❖ Zergatik lotsatzen zarete mutilak hainbertze?

◆ **Bidaiatzeko, nora?**

❖ Hainbertze lekutara... mundu osoari buelta emanen nioke.

◆ **Nesken arteko birtute bat?**

❖ Guk, kostata baina, denetaz hitzegiten dugu, mutilek ez bezala.



Nekane MENDIA
17 urte
DONEZTEBE

ttiipi-ttapa
TTIPI TXARTELA
Saltzaileak behar dira

TTIPI TXARTELA saltzeko. Baldintza ekonomiko interesgarriak. Interesatuak euskalduna izan behar du eta bere kontura lan egiteko kapazitatea. Deitu...

☎ **631188**

GAZTE MODA OSAGARRIAK
Amara Irazoki eta Isabelle Chevalier
zuen zain aurkituko dituzu

The Angels
Jose Egino 7, ☎ 613179 • IRUN

E D A R I A K

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

ROMANO dekorazioak

PINTURA ETA PAPEREZTATZE LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

☛ Zolak jartzen ditugu:
• Kortxoak • Mokatak
• Parketa • Sintasola

☛ Gure kolokazio tailerra daukagu

☛ Komertzioen errotulazioa

Legia I • Tel. 631137-630941 • **BERA**

Aurrekontuak konpromezurik gabe

Prozesionariaren kontra 1.500 hektarea intsektizidaz lainoztatuko dira eskualdean

Negu bukaera aldera egingen da fumigazioa helikoptero bidez

Pinuetan agertzen den prozesionaria izurriteari aurre egiteko eskualdeko 1.500 hektarea lainoztatuko ditu Nafarroako Gobernuak Ingurugiro sailak, intsektizida erabiliz. Lainoztatzea helikopteroen bidez egingen da negu bukaera aldera eta Nafarroako Gobernuaren helburua ez da tximeleta zomorro honekin bukatzea, tekniko-ki zaila delako, izurritea kontrolatzea baizik.

Izan ere, pinuaren prozesionariaren kontrola erabilgarritasun publikokoa deklaratu zuen Ingurugiro sailak joan den urteko ekainaren 6an. Honela, tratamendua programatzea eta egitea bere esku dago, pinadien jabea nor-nahi izanda ere.

Nafarroako Gobernuak: 'Kalte larriak sortzen ditu zuhaiztietan'

Nafarroako Gobernuak teknikarien erranetan, «prozesionaria izurritea izatera ailegatzeko da sarritan eta kalte larriak sortzen di-

Herriak	Hektareak
Arantza	69
Areso	10
Bertizarana	26,5
Donamaria	6
Doneztebe	270,5
Eratsun	23
Etxalar	236
Ezkurra	55,5
Goizueta	548
Igantzi	36
Ituren	0,5
Leitza	99
Saldias	13,5
Sunbilla	11,8
Zubieta	94,7

Herriz herri helikopteroa erabiliz fumigatuko diren hektareak. Doneztebeko datua Bidasoa-Berroaran inguruari dagokio

Artxibokoa

tu zuhaiztietan».

Bertzalde, espezie honek lehentasuna omen du Nafarroako Gobernuak bultzatzen duen oihanetako osasun arloaren ikerketan. «Batetik, zomorroa eta bere hondakinak ezin dira ukitu, erresumin-garriak direlako eta, bertetik, sortzen dituzten poltsak eta zuhaitzen hosto galtzeak estetikoki itsusiak dira» diote Iruñetik. Halere,

oso aurreratua dagoen izurritea besterik ez dutela tratatzen azpimarratu dute.

Gurelur: 'Tratamendu hauek ez dira eraginkorrak'

Talde ekologisten iduriz, ordea, ikusteko dago tratamendu hauek eraginkorrak diren. «Orain hiru zpalau hazi baziren ere, oraindik nonahiko pinadietan ikusten dira prozesio-

naria poltsak, beraz ezin erran arrakasta handia dutenik» diote Gurelur erakundetik.

Talde honen ustez, tratamendua ez da bategi selektiboa eta prozesionariari ez ezik, zainduta dauden bertze intsektuei ere eragiten die. Honetaz gain, «ura ere kutsatzen ahal dute eta uraren bidez, giza-kiak kontsumitzen dituen onddoak, karakolak...».

Zazpi besta egunetan ireki ahal izanen dira dendak aurten

Nafarroako Gobernuak Industria, Komertzio, Turismo eta Lan sailak, merkataria eta kontsumitzaile elkarrekin eta Komertzio eta Industria Ganbarekin lortutako akordioaren arabera zazpi besta egunetan ireki ahal izanen dira dendak aurten. Lehenengo Errege bezpera eguna izan zen. Ondotik, martxoaren 27an (Ortzegeun Saindua); abenduaren 3an (San Frantzisko Xabier eguna); abenduaren 6an (Konstituzio eguna); abenduaren 8an (Inmaculada eguna) eta abenduaren 14 eta 21ean (igandeak) ireki ahal izanen dute dendariak. Iruñean, San Saturnino egunetan ere ireki ahal izanen dute.

Belateko tunelaren lanetarako 125 milioi terdi gehiago

Belateko tuneleko lanen aurrekontua 125 milioi terditan igoko da, Nafarroako Gobernuak Herrilan, Garraio eta Komunikabide Sailak onartu berri duenez. Dirutza honekin lur azpiko urek sortutako kalteak moldatuko dira. Aurrekontuaren zabal-tze hau nahitaezkoa omen da, datozen urte-tako aurrekontuetarako fondoak ere jokoan baitaude.

Dia  **Autozerbitzua deskontua**

Hamabostero ofertak

Zatoz eta ikusi

Eztegara, 6 • ☎ 63 14 03 • BERA

Javier Manterola

TEKNIKO
INSTALATZAILEA
iturgintza • gasa • kalefakzioa

Tfnoa: 630 031 • BERA

GOZOTEGI-JAONE



Altzate, 19 • 630786 • BERA

OKANE

HARATEGIA • URDAITEGIA

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA

Aurtengo iñauteriak egitarau zabalagoarekin heldu zaizkigu

Igande arratsean Gozategi taldea arituko da Altzateko Plazan

KRISTINA BOAN

Ohitura denez, ortzeguna haurren eguna izanen da, goizez «zingar-arrautze» eta arratsaldean iñude eta artzaiak dantzatzuko dute. Larunbatean, «kaldere-ro»ek «momo» erregearen eta berekin batera iñauterien etorrera iragarriko dute, kantu eta kazula soinuaren artean. Igandean, berriaz, iñude eta hartzaiak itzuliko dira, oraingoan nagusien eskutik. Baina haurrek ere izanen dute ongi pasatzetik arratsaldeko 5,30etan hasita karrikaz-karrika ibiliko den antzerkiarekin. Gainera, arratsaldeko 8etan Gozategi taldeak joko



Gisako irudiak ikusiko dira aurtengo iñauterietan

Argazkia: GOIKO

du Altzateko plazan. Asatzen goizeko «zingar-arrautze» eta gero Berako gazteek antola-

tuta Zalain jatetxean bazkaria egingen da. Apuntatu nahi duenak Errekalde edo Puin

eman beharko du izena. Arratsaldean txarangak alaituko du berandurarte luzatuko den giroa.

Ikastolak ez du obra baimena ordainduko

Labiaga ikastolak ez du haur eta lehen mailako ikastetxe berriko obra baimenarentasa (3.431.114 pta) ordaindu beharko. Herriko Etxeak erabakia ahabatez onartu zuen, idazkariak kontrako txostena azaldu arren. Udalak kasu berezitat hartu du gai hau, egin den obra 50 urteren buruan udalera itzuliko dela kontuan hartuz.

'Euskara betiko mintzoa' erakusketa

«Euskara betiko mintzoa» erakusketaren itxiera ekitaldian, Herriko Etxeko eta Nafarroako Gobernuak Hizkuntza politikarako Zuzendaritza Nagusiko agintariak izan ziren Kultur Etxean, urtarilaren 14an. Abesbatzak bere kantuak eskaini zituen eta ondoren berendua banatu zen. Aitzineko bi asteetan, euskarari buruzko gauza interesgarriak ikasteko eta ikusteko aukera izan zuten bertara hurbildutakoek.

Arg.: Joxemanuel



flash

- Bera-Goizueta**
 ibilbidea egin dute igande honetan Agerra mendi taldekoek. Goizuetan bazkaldu ondotik autobusean itzuli ziren.
- Zinegotzi aldaketa**
 Fermin Garcia Mingia Herrialde taldeko zinegotziak bere kargua utzi zuen azken udal batzarrean.
- Mendien antolatzea**
 Nafarroako Gobernuak osorik ordainduko du Onura Publikoko Katalogoan dauden mendien Antolatze Proiektua egitea. 4.384.800 pezeta jasoko ditu Herriko Etxeak.
- Mendi probetxamendua**
 Iesola-Ardizaku inguruan 3.930 alertze (656 m³ zur) probetxeko bigarren enkante deialdia luzatu du Herriko Etxeak. Hasierako prezioa 2.066.400 pezetakoa da, %10a jautsi ondoren, lehen enkantera ez baitzen proposamenik aurkeztu.
- Matrikulatze kanpaina**
 Otsailaren 14a arte zabalik izanen da Bortzirietako Euskaltegian izena emateko epea. Maila guztiak, alfabetatze, EGA eta Hitanoa emanen dira. Izena emateko 637796 telefonora deitu.

BOTXO
ostatua

Tfnoa: 63 00 52
Zalain Auzoa, BERA

SAROB
okindegia

SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

ZALAIN
JATETXEA

EGUNEKO MENUA ETA KARTA

Boda eta banketeak ematen dira

Zalain Auzoa
© 63 11 06
BERA

Iñauteriekin batera, lotsak alde batera uzteko garaia ailegatu da

Datorren asteko larunbatetik asteartera iñauteriak ospatuko dira

AITOR AROZENA

Egun haundia igandekoa izanen da, zaku-zarren irteerarekin. Halere, hiruzpalau egunetan iñauterien giroaz goxatu ahal izanen da herriko karriketan eta baserri auzoetan. Gazte-txoenen eskutik Ortze-gun Gizeneko "Arraultze-arraultze" eskea egin ondoren, larunbat gauean ikusiko dira lehen moztarok.

Igandean, erran bezala, zaku-zarren txanda izanen da eta bakar batek baino gehiagok laisterka saioak egin beharko ditu beraien aitzinean. Astelehen eguerdian, berriz, karroza ederrak ikusi ahal izanen dira. Baserri auzo-etako gazteentzat egun batez luzatuko da festa, Goitarrak eta Fraindarrak asteartearekin probetxuko baitute horretarako.



Goitarrak Katazpegi auzoan barna



San Anton egun jendetsua

San Anton egunean jendea joan zen Endara auzoko baselizara meza aditzera, baina ondoko igandean, eguraldiak lagunduta, erromeri giro ederra izan zen. Mendian pasiatu, meza aditu, gosaldia, bedeinkatutako erroskilaren bat erosi, dantzatu... denerako aukera izan zen

Arg.: Aitor

Matrikulazio kanpaina euskaltegian

Otsailaren 14a arte zabalik izanen da Bortzirietako Euskaltegian izena emateko epea. Euskalduntze maila guztietaz gain, idazten eta irakurtzen ohiturarik ez dutenentzat, hika solastu eta idazteko eta EGA eskuratzeko azterketa prestatzeko ikastaroak izanen dira, bakoitzari komeni zaion ordutegian. Informazio gehiagorako 637796 telefonora deitu.

Pepe Rei idazlearen solasaldia Arranon ortzegunean

Arrano elkarteak hargararren urteurrena beteko du aurten eta hori ospatzeko zenbait ekitaldi antolatuko ditu, "Hamar urte hegaka" izenburupean. Horien artean lehena, ortzegunean, urtarrilak 30, arratsko 8etan, Pepe Rei idazleak eman duen solasaldia izanen da. Pepe Rei 'egin' egunkariko ikerketa saileko burua da eta zenbait libururen egilea.

OZSa herrian egiteko hamar su-hiltzaile postu gehiago

Soldaduskaren Ordezko Zerbitzua herrian egiteko su-hiltzaile boluntarioei laguntzeko bertze hamar plaza sortuko ditu Herriko Etxeak. Lehendik ere hamabortz lagunentzako lekua eskaintzen zuen udalak. Kontzientzia-Eragozpeneko Kontseiluaren arabera Lesakan 41 objektore daude. PNV eta EA erabakiaren alde agertu ziren eta HB abstenitu zen.

flash

Bittiriako

espaloiak egiteko 7.640.000 pezetako dirulaguntza emanen du Nafarroako Gobernuko Toki Administrazio sailak. Inbertsio ia 12 milioi pezetakoa da.

Tantirumairu ikastolak

225.000 pezeta jaso ditu Nafarroako Gobernutik "Gure bazterretako bizia" proiektua gauzatzeko. Dirulaguntza hau Ingurugiro Hezkuntzarekin lotutako ekitaldiei ematen zaio.

Mendien antolatzea

Nafarroako Gobernuak osorik ordainduko du Onura Publiko Katalogoan dauden mendien Antolatze Proiektua egitea. 5.142.000 pezetak jasoko ditu Herriko Etxeak.

Nabaz eta Katazpegi auzoetara

edateko ura banatzeko lanak Mariezkurrena eraikuntza enpresak egingen ditu 92.994.223 pezetarekin. Bortz hilabeteko epea izanen dute lana akautzeko.

Frain auzorako

bideak egokitzeko lanen lehendabiziko fasea Arkaitza eta Orsa eraikuntza enpresek osatzen duten aldi baterako elkarrekin egingen ditu 28.369.866 pezetan.

XATURETXEA



JATETXEA

Tfnoa: 63 70 27 LESAKA

INAXIO JANARIDENDA

Igandetan 9etatik 13etara irekia
ASTERO eskeintza bereziak

Plaza Zaharra, Tfnoa: 637059 - LESAKA

BEREAU

jatetxea • Hotela

Lesakako Bidegurutzean
Tfnoa: 63 73 82 - LESAKA



Emakumeen 'Andre Mari' elkarteak urteko batzarra egin zuen

Berrindartu egin nahi dutela iduri du

PELLO APEZETXEA

Urteko kontuak eta gora-beherak eman ondotik, zenbait erabaki ere hartu zituen Elkarteak. Lehenik, Emakumearen Institutuan izen ematea. Horrela, Institutu horretako kide izanez, Gobernutik dirulaguntzak eskuratzen ahal omen dira. Bertze hau ere onartu zuen Batzarra, emakumeentzako interesgarri diren zenbait ikastaro antolatzea heldu den urterako, hala-nola, eskulangintza, lore eta baratze-zaintza etabar.

1996ko jaiotza eta heriotzak

Bi haur sortu zaizkigu herrian, hondar urtean, orain arte gertatutako kopururik txikiena, noski. Bertzalde, haia maika laguni eman dio-



Larraburuako mus txapelketako sarituak

Lehen eta bigarren saria eskuratu dutenak dira jarrita daudenak, Benito eta Luis txapeldunak erdian. Hirugarren eta laugarren saria eraman dutenak, berriz, zutik ageri dira.

Argazkia: PELLO

gu lurra urtean barrena. Ez ziren den-denak orain hemen bizi, baina herrikoak zirenez, bertako lurrean nahi izan dute gelditu.

Eskulangintza ikastaroa

Argi dago eskulanak emaztekieen gogoko direla, azken urteetako

ikusitako. Eguberri aitzinean bukatu zen Gobernuak lagundutako ikastaroa, eta berriz ere, hogeita gehiago prest dautte segitzeko Astesantu-

ra arte. Oraingoan ez dute segurtatu dirulaguntzarik izatea, baina eskatu, eskatzekotan daude.

Partxis txapelketa

Musekoa bukatu orduko partxiskoa hasi zen. Igande arratsaldeetan zarata gehixeago sumatzen da Larraburu- an. Dena den, muslariak ere ez daude geldirik egoteko, eta bertze gezur batzuk botatzeko prest dira negua joan baino lehen. Urdaiazpikoa goiti-beheiti, eguerdiek ere jende gehiago ekarraziko dute.

Diapositibak

Emanaldi interesgarria eskeini du Ixakak gizonen Biltokian azken urteetako Iñauteen argazkiekin. Jendez bete zen elkarte.

ORBELA gimnasioa

- Squash eta sauna
- Hidromasaje bainua
- Muskulazio-aretoa
- Kirol masajea

Antioiu 21 • 637950 • LESAKA

F. MARITORENA



Mendi eta lorategi garbiketak

Tfnoa.: (948) 63 11 99 - BERA

KATTU

ostatu - jatetxea

Plater konbinatuak eta menuak

627573 • LESAKA

IRU BIDE
ERRETEGIA

Tfnoa: 637127
LESAKA

KOXXILA OSTATUA



Zarandia, 4 - LESAKA

TOP CLASS ENGLISH

INGELES AKADEMIA

Alan Leiper
ZUZENDARIA

ITZULPENAK: Ingeles, Frantsesa
ITZULTZAILEAK: Hitzaldiak, enpresak, etabar.
ESKOLA LAGUNTZA

4 URTETIK AITZINERA • GAZTEAK • HELDUAK

Ikusentzuteko metodoak • Hango irakasleak • Udako ikastaroak

LESACA • Bittiria Plaza 6, Behea • 989.702554
BERA • J. Caro Baroja 10, Behea (Eskolaren aitzinean)
ETXALAR • (Eskola zaharretan)



HERRIKO OSTATUA

Jatetxea

SAGARDOTEGI MENU BEREZIA

Txeriz sagardo orara **1950 Pta.**
(2 pertsona gutxienez)
Bakailu Tortila
Idi truleta
Gazna, menbrilloa, intraurrak
eta sagardoa nahi adina

635290
ETXALAR
ASTEARTETAN
ITXITA

Astegunetan afariak aurrez eskatuta bakarrik

Berrogeitabi hautagai Herriko Etxeko administrari lanposturako

Ortziral eta larunbat honetan izanen dira herriko iñauteak

OSKAR TXOPERENA

Berrogeitabi lagunek eman dute izena administrari lanposturako lehia parte hartzeko, horietako borts igantzarrak. Legezko tramite guztiak bete ondoren, otsailaren azken aldera edo martxoaren hasieran egin nahi dira probak. Garbi dago gogor ari beharko duela lanean lanpostua eskuratu nahi duenak.

Irakasle berria eskolan

Irakasle berria dugu hilabete batzutarako Igantziko eskolan, Itziar Barberena erratzuarra. Ttikien gelan dago, Rosa Eugiren ordez etorrria. Animoak eman beharko batari heldu zaion lanarengatik eta zorionak bertzeari familia berretzeagatik.



Argazkia: OSKAR

Gero eta lan gehiago hartzen dute gurasoek haurren moztorroak prestatzen, lan aunitz denbora gutirako dela kontutan hartuz gero. Larunbat arratsaldean izaten dute haurrek eurentzat. Aurten, aditu dugunez, trikitilariekin ibili behar omen dute gainera. Heldu den astean, asteazkenez, eskolako moztorro besta izanen dute eta Ortzegun Gizen eguna biharamonean.

❖ Hilabete honen azkena baino lehen eraman beharko dute eskaria Herriko Etxera

mendi zatiren bat erre nahi dutenek, erretze lanak hobekiago moldatzeko denen artean.

❖ Orain arte lanean aritzeko lizentzia fiskalaren beharra zeukatenek, zenbait aldaketa

direla eta, Herriko Etxera agertu beharko dute urtarrilaren 30a baino lehen.

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 62 75 14
Beheko Plaza 8, LESAKA

J. RAMOS
Zolak akutxilatatu eta
barnizatzen dittut
© 631342 BERA • © 637172 LESAKA

BEKO ERROTA
Lore eta landareak
Frain auzoa • © 63 78 26
LESAKA

LABE ZAR
© 631076 • BERA

TXIRULA
Albistur, 39-K
627542
LESAKA
• bitxikeriak •
• opariak •
• enmarkazioak •

koxkonta
Sagardotegia
zabalik
Deitu
ereseribak
egiteko
Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • LESAKA

ALDO OSTAROA
LESAKA

EROSLE
LESAKA
Kalitate-prezio arteko
orekarik hoberena
Frexkuena
zugandik
hurbilago
Bittiria, 67 - © 637264

Asteburu honetan ospatuko diren iñauteetan herri kirol apostu mundiala

Igande eguerdian arituko dira Patxi eta Donato Larretxea lau herritarren kontra

ELIXABET ETA GARBIÑE

Urtarrilaren 30, 31 eta otsailaren 1 eta 2an ospatuko dira herriko iñautik. Egun horietako egitarau zabala pres-tatu da.

Ortzegunean, Primitivo ostatuan gosalduz emanen zaie hasiera iñauteei. Ondoren mo-zorroak Bordalarrea eta Eguzkialdea auzoetan ibiliko dira, Joakin Madariaga akordeola-riarekin. Gauean, ema-kumeen afaia Pabloenea jatetxean.

Ortiziralean, mozo-roak Azkilarrea eta Aientsa auzoetan ibili-ko dira trikitilariarekin. Gauez, Kristina eta Amaia taldearekin dan-tzaldia gorapean.

Larunbatean, mozo-roak herrian barna pus-ka-puska ibiliko dira. Arratsaldeko 5etan haur mozorrotuen lehiaketa.



Intsumisioari buruzko solasaldia

Joan den urtarrilaren 10ean, ortziralean, Ekaitza elkartearen intsumisioari bu-ruzko solasaldia eta afaia antolatu zen. Hizlariak, Asier eta Alex Iruñeko bi intsumitu gazte ziren. Bertara 35 bat gazte hurbildu ziren. Gaua giro ede-rean igaro zen, besta goizaldera arte luzatuz.

Arg.: Elixabet

Gauez, gaupasa mozo-rrtua, Kristina eta Amaia-aren doinuen la-guntzaz.

Igandean, azkenik,

12etan herri kirol desa-fio mundiala: proba konbinatuan, Donato eta Patxi Larretxea lau aranztarren kontra

(Lorentxo Apezetxea, Tomas Oskoz, Oskar de Rueda eta Joxemigil Errandonea). Donato eta Patxiren lana, aizkoran

8 kanaerdiko moztea, arpanan 8 korte eta lais-terka 16 itzuli frontoia-ri. Laukotearen lana, txanda librean, aizko-ran metroko 8 enbor moztea, arpanan 8 kor-te eta laisterka 16 itzu-li. Apustuaren ondotik, Maddalen Lujanbio eta Jokin Sorozabal ber-tsotan arituko dira. Eguerdiko 2etan herri bazkaria eta 1950, 51 eta 52an jaiotako kin-tozen besta Aterpe erre-tegian, trikitilari eta ber-tsolariak alaiturik. Arratsaldeko 7,30etan aurtengo iñauteriei aka-baila emanen zaie.

Herria obretan

Oraindik obretan se-gitzen dugu. Oraingoan plaza berritzea tokatzen da. Iñauteak hasi baino lehen herria pixka bat txukuntzea espero du-gu, hankaz gora baita-go.

ANTZUZELA S.L.

Iruingo errep. - BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angelak	Erlaizak
Orma antzinak	Moldurak
Leioak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrakizak
Pilareak	

'Abujandakoi' Muzioa
Zahar antzinak Txapela

**ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK**

**ALBERGIA
JATETXEA**

ATERPE
ALBERGIA

☎ 634179
ARANTZA

Aranguren

Aroztegi mekanikoa

Tel.-Fax: (948) 63 72 58
Tel.mug.: 908-77 51 85
Otsango industrialdea
31770 LESAKA

- Leihoak
- Aurre-markoak
- Eskailerak
- Fabrikanteak gara

GRUPO ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 — BERA — ☎ 63 07 63

OBRA PROIEKTUAK

- ✓ Etxe berriak eraikitzeko
- ✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
- ✓ Urbanizazio proiektuak
- ✓ Obra-zuzendaritza

Udalendako
aholkularitza-zerbitzua
hirigintza lanetan

BIDASOA
arkitektura bulegoa

Bitirria, 45 • ☎ 637503 • LESAKA

MALERREKA


Mendizale doneztebarrak Kilimanjaro eta Aconcaguan

Afrika eta Amerikako mendirik altuenak goitu dituzte

TXEMA ALDABE

Hilbeltzaren 11n, lau lagun atera ziren Miarritzeko aireportutik, Parisetik pasatuz, Nairobira (Kenia) ailegatzeko. Iritsi eta berehala, Tanzanian dagoen Afrikako mendi altuenera, Kilimanjarora alegia, goitzeari ekin zioten. Mendi honen kaskoa 5.895 metrora dago eta bidean lau egun eman ondotik, beraien helburua lortu zuten Zarbo Ibarrola, Joserra Aldabe, Patxi Zamorano eta Axun Santesteban, bertan ikurriña seinake gisa utziz. Hilbeltzaren 29an itzuli ziren.

Bertzalde, orain dela hilabete bat bederratziz lagun abiatu ziren Aconcagua, Ameriketako mendi altuenaren gailurra lortzeko asmoz. Imanol Beroz eta Lesakako Ramontxo Ordoki



Juanjo Urrutia saldiastrarra, bigarren mailako txapelduna bikoteka

Saldiako Juanjo Urrutia pilotariak txapel berri bat ekarri du eskualde-
ra. Ansotegi aulestiarra bikote zuela 22 eta 16 irabazi zieten Koka eta Hirigoi bikoteari, hilbeltzaren 17an ospatutako bigarren mailako eskuz binakako txapelketaren finalean. Juanjo Urrutiak partidu bikaina egin zuen eta adituen erranetan, bere esperientzia erabakioarra izan zen partidua irabazteko.

Arg.: Txema

bertan zirelarik. Ia 7.000 metro dituen mendi hau goitu zuten zortzi lagunek eta itzultzeko puntuan daude.

Itzulpen ikastaroa

Hilbeltzaren 15ean hasiera eman zitzaion Malerrekako euskaltegian itzulpen ikastaroa.

ari. Erdararik euskarara itzultzeko moduak eta teknikak ematen dira. Ikastaroan 16 lagun ari dira, gehienak jendau-

rrean lanean aritzen direnak eta itzulpenak egiten dituztenak. Irakaslea, berriz, Iruñeko itzultzaile bat da.

flash

◆ **Legasako**
mendien erabilera eta aprobetxamendu egokia egiteko Kudeaketa Plangintza Teknikoa eratzeko 5.180.940 pezetako dirulaguntza jasoko du Legasako Herriko Etxeak Nafarroako Gobernutik.

◆ **Sunbillako Antzakaitz kultur taldeak**
pasa diren Eguberrietako balantze ona egin du, olentzero eta errege kabalgataren arrakasta azpimarkatuz. Olentzero egunean ehun bat haur eta heldu elkartu ziren 5 kordionista, 10 trikitilari, pandereta, tronpeta eta saxofoi joleekin batera. Frontoian egin bazen ere, kabalgata arras polita izan omen zen.



BELARRA
OSTATUA - JATETXEA
Amezitia karrika • DONEZTEBE
Tfnoa: 45 03 06



SANTAMARIA
Jatetxea
Especialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

GAZTELUKO OSTATUA

- Eguneroko menua eta karta
- Logelak

© 450105 • GAZTELU

LAUKI KRISTALDEGIA

- Ispiluak
- Kristaldegia orokorrean
- Kristal klase guztiak jartzen ditugu
- Grabatuak kristalean eta edozein materialetan
- Aurrekontuak kristala jarrita eta jarri gabe

© 450595 • SUNBILLA



ARIN
ASEGURUAK

Baserria edo txaleta su, tximista, ura, etabarretatik asegurtzeko adibidea:

- Eraikuntzaren balorea: 20.000.000 pezeta
- Erantzukizun Zibila: 25.000.000 pezeta, kristalak, sanitarioak, ispiluak haustea barne
- Ordaintzeko: 17.989 pezeta urtean

Arrokia 21, Tel.-Fax: 450266 • DONEZTEBE

ETXANDI TXOKO
jatetxea

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN
Tfnoa: 45 04 91

DONEZTEBE



Andeetako inkak, garai bateko hipiak... zer prestatuko dute aurtengoan?



Argazkia: ZALDUA

Otsailaren 7tik 9ra ospatuko dira aurtengo Iñauteriak

Gasolindegia berria irekiko da aurten Leitzako bidean

TXEMA ALDABE

Aurtengo iñauteriak aitzindu zaizkigu, baita bat baino gehiago us-tekabeen harrapatu ere. Halere, azken momen-tuan, bat batean jendea animatu eta iñauterie-tako griña kanporatuko du.

Otsailaren 7an hasi-

ko dira Donezteben, goi-zetik baserriaz ibi-liko dira gazte koadri-lak, akordeoiaren soi-nua lagun dutelarik. Larunbata izanen da, ohi bezala, iñauterietako egunik haundiena. Arratsaldean, hain arra-kastatsua den desfilea eginen da herriko ka-riketan barna. Igandean

akituko dira aurtengo iñauteriak. Beti bezala, otorduak herriko jate-txe ezberdinetan eginen dira egunotan.

Ongi pasa eta mozo-rrak ongi aukeratu.

Gasolindegia berria irekiko da

Donezteben, Leitzako bidean, hain zuzen

ere, gasolindegia berria irekiko da aurten. Honetaz gainera, auto-ak garbitzeko hiru gar-bileku eginen dira. Gasolindegia honen nagusia Jose Antonio Elizondo da, Renault kontzesionarioaren ja-bea eta dagoeneko udal baimenak eskuratuak ditu.

Liburuzain berria

Azaroko hilabetea eta abenduaren 9a arte aritu da liburuzain la-anean Pili Urrutia. Baina osasun aldetik ongi ez dabilela eta, aste pare batez liburutegia itxia egon ondok Elizondo-ko Itziar Goñi hartu du-te liburuzain bezala. Ha-siera batean, bere kon-tratoa urtarrilaren 31n akituko zaio, berak ja-sotzen duen langabezi saria egun horretan akitu-ko baitzaio. Lanpostu honen gorabeherak age-rian daude eta argi da-go lankidetzaren soziaz-ize-neko kontratu motaren menpean egoteak ez diola inongo mesederik egiten liburutegiaren funtzionamenduari.

Isunak jartzeko baimena dute alguazilek

Trafiko Ordenantza errespetatzen ez dela eta, isunak jartzeko baimena eman die Herriko Etxeak bi alguazilei. Zenbait ordutan arazo dexte izaten dira he-rrigunean eta kargatze-ko eta deskargatzeko or-dutegia ere berriro eza-rriko da. Zabala eta Zugarramurdi zinego-tziak neurri hauen kon-tra azaldu ziren, egiaz-ko arazoa aparkamen-du falta zela erranez.



APARAN, S. A. BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 450 133
451 541
Faxa: 450 334
DONEZTEBE

MASAIA eta BIZKORTZE ARIKETAK

Txomin IRAZOKI

**Laister
zabalik**

Parrokia 5 • **DONEZTEBE**

MALERREKA

Ituren eta Zubietan, joan den urteko udal aurrekontuak onartu dira

Zubietan hasierako onespena jaso dute, Iturenen behin betikoa

TTIPI-TTAPA

Joan den urteko aurrekontuaren behin betikoz onartu du Iturengo Herriko Etxeak, jende aitzinean beharrezkoa den denbora egon ondok ez baita alegaziorik aurkeztu. Diru-sarrerak eta irteerak 67.762.638 pezetakoak dira.

Gastuetan, partidarik inportanteena inbertsioetan eginen dena da (35.320.406 pezeta). Dirutza honetan sartzen da bi lur eremu erostea, bat zuhaitz landareak sartzeko eta bertzea etxebizitzak egiteko; saneamendu lan osagarriak egitea; oihanak hobetzea; Lasagako zubia moldatzea; uhaldearen bideratzea eta Hornidura Plangintza Zuzentzailea. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erosten 14.150.808 pezeta erabiliko dira eta langileen soldatak ordaintzeko 3.841.148 pezeta, bertzeak bertze.

Diru sarrerei dagokienez, ia 25 milioi subentzioen bidez sartu-



lhauteriak Ituren eta Zubietan

Ituren, Zubietan eta Aurtizen hedatu berriak dira joareen doinuak. Urtetik urtera jende gehiago erakartzen du ikuskizunak.

ko dira. Zerga eta tasa ezberdinen bitartez ia 22 milioi pezeta sartuko dira Herriko Etxeko kutxan eta transferentzia arruntan bidez 11

milioi pasatuxeak. 1995eko kontuak ere onartu ziren.

Bertzalde, Iturengo Herriko Etxeak, aurtengo ur-tasak (6.000

pezeta etxeko ur-kontsumorako eta 12.000 pezeta tabernetan) eta ordenantza fiskalak, hasiera batean behinpein, onartu ditu.

40 MILIOI PEZETAKO AURREKONTUA ZUBIETAN

Zubietako udalak, bere aldetik, 40.248.433 pezetako sarrera-irteerak izanen ditu, urteko azken batzarrean egindako hasierako onespenari alegaziorik aurkeztu ez bazaizkio.

Inbertsioak egiteko 12 milioi erabiliko dituzte eta 11 milioi pasatuxeak langileen soldatak ordaintzeko. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erosten ia 7 milioi gastatuko dira.

Diru-sarrerak aipatuz gero, haundienak subentzioen (14.467.677) eta tasen (11.458.000) bidez ailegatuko dira. Kapital transferentziak 7 milioi terdikoak izanen dira eta zergen bitartez ere ia 4 milioi sartuko dira Herriko Etxeko kutxan.

Ordenantza fiskal orokorra, agiriak luzatu eta tramitatzekeo tasak arautzen dituen ordenantza, auzolana eta bidelana eta Merkaritza ez-egonkorra arautzen dituzten ordenantzak ere onartu ziren.

FUNERARIA ZERBITZUAK DONEZTEBEn



MALDAERREKA, S.L.

24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irongo ospitaletatik
edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE



**ZUBIRIA
MINDEGIAK**

- Etxeak apaintzeko landareak
- Baso landareak
- Bertako frutondoak

ARRAIOZ • NARBARTE
Tfnoak: 452032 (bulegoan) • 592034 (etxean)
Faxa: 581274

ALDABE TAXIA

DONEZTEBE
© 450687

ttipi-ttapa

6.300 harpidedun
22.000 irakurle

MALERREKA

Azpiegitura lanak egiteko 51 milioitik goiti ordainduko ditu Nafarroako Gobernuak

Proiektuen kostua 75 milioi pezetakoa izatea espero da

TTIPI-TTAPA

Rafael Gurra, Nafarroako Gobernuak Toki Administrazio kontseilariak, 1996rako Herrietako Azpiegitura Lanen Plangintza-ren barnean, Malerreka-kako zenbait herrietan egindako edo egiten ari diren lanak ordaintzen laguntzeko foru agin-duak sinatu ditu.

Honela, **Beintza-Labaiengo** Apezene-kobordarako bidea mol-datuko da. 288 metro-tan hiru metroko zaba-lera emanen zaio. Lana egitea 2.420.000 peze-ta gostako da eta Nafa-rrako Gobernuak 1'7 milioi ordainduko du.

Eratsun eta **Saldias** arteko ur- hodia edo tu-beria egitea eta **Era-tsungo** deusitoan mol-daketa batzuk egitea ere aurrikusia dago. Ur-ho-diak ia bi kilometroko



Iñauteriak Eratsunen

Eratsungo iñautetan herritar gehienak elkartu ziren larunbat gauean, umore onean afaltzeko. Bertan Egaña eta Peñagarikanok bertso ugari bota zituzten eta, urtero bezala, Modesto akordeolaria ere giroa alaitzen aritu zen. Aurtengo iñauteak akitzeko, meza ondotik bazkaria eta dant-zaldia izan zen, Modesto aspertu zen arte.

luzera izanen du eta 8 zentimetroko zabalera. Proiektuaren arabera, 24' 18 milioi gostako da

lan hau egitea eta Toki Administrazio sailak 18'78 milioi pezeta emanen ditu.

Ezkurran, eurien eraginez kaltetutako zenbait bide moldatuko dira. Guztira, hameka

baserrira doazten sei bi-de daude hondatuak. Moldatzea 4'88 milioi gostako da eta Nafa-rrako Gobernuak 3'52 milioi ordainduko ditu.

Donezteben, San Migel karrikako ur-hor-nidura eta saneamendu sareak osorik berritu di-ra eta ondoren zoladu-ra jarriko da. Gaur egun-go farolak ere aldatuko dira. Aurrekontua 11.904.000 pezetakoa da, horietatik 7 milioi Iruñetik paratuak.

Sunbillan, azkenik, Arrutela, Juantxekobor-da eta Oronoborda-Arretxanbordarako bi-deak moldatuko dira. Guztira, 3.167 metro or-migoiztatuko dira, bi metro terdi eta hiru me-tro arteko zabalera ema-nez. Kasu honetan, Nafarroako Gobernuak 20,82 milioi emanen di-tu, lana egiteak 31'67 milioi gostako den bi-tartean.

TURISMO PARTZUERGOA

Denbora libreria zuzendutako ikastaroak antolatuko dira

ITG erakundearekin batera

TTIPI-TTAPA

Bertizko Turismo Partzuergoak, ITG era-kundearen laguntzarekin, denbora libreria zuzen-dutako ikastaroak anto-latuko ditu. Interes pro-fesionala duten guztiei

zuzenduta daude ikas-taro hauek eta beraien bidez, oinarritzko eza-gupenak ikasteaz gain, zonaldean dauden akti-bitate enpresetan lane-an aritzeko balia daite-ke. Otsailaren 15ean pi-raguismo eta rafting-

arekin hasita, irailaren 20an espeleologiarekin akitu arte, zortzi modu-lo ezberdinetan banatu-ko dira ikastaroak. Ez da derrigorrezkoa mo-dulo guztietan parte har-tzea, baina antolatzaie-leek ikastaro osoa egin

nahi dutenei lehentasu-na emanen diete. Era-berean, apuntatzerako orduan lehentasuna edu-kiko dute Bertizko Tu-rismo Partzuergoko ki-deek, hauen seme-ala-bek eta Baztan-Bidasoa-ko nekazariek eta hauen

senideek Partehartzai-leak 17 urtetik goiti izan eta 5.000 pezetako kuo-ta ordaindu beharko du. Kuota honekin, modu-lo bakarrean edo ikas-taro osoan parte hartu dezake. Arestian aipa-tutako moduloz gain, Animazioa, Hipika, Senderismoa, Mendi Bizikleta, Eskalada eta Mendikateen jeitsiera moduloak emanen dira.

Informazio gehiagorako Bertizko Partzuer-gora (592323) edo ITGra (278011) deitu.

GOIZUETA

Igande honetan zortzi hasi eta astearte bitarte ospatuko dira Iñauteriak

Emakumez osatutako konpartsa, berriz, larunbatean kaleratuko da

ESTEBAN AROZENA

Sekula guziko ohiturari jarraituz Garizuman sartu aurreko hiru egunetan, otsailaren 9, 10 eta 11n, festa eta giro aparta nagusituko da herrian, orduan ospatuko baitira iñauteriak.

Egunik makalena igandea da programari dagokionean behintzat, arratsaldeko 4etan hasiko den umeen zahidantza eta ilunabar eta gaueko *Etxabe anaiak* trikitilarien dantzaldia baitira burutuko diren ekintza bakarrak. Dena den, aurtengo lehenengo disfrazak ere azalduko dira ilunabar alderako seguraski.

Astelehen goizeko 8etan bilduko da plazan mozorroen taldea, baserrietako puska biltze-



Beste batzuen artean iaz sarituak suertatu ziren argazkitan ikus daitezkeen disfraz hauek

ari ekin asmoz. Inolako presarik gabe egingo dutenez ibilbidea, ilunabarreko 7ak joak izango dira guttienez berriz herriratu orduko. Gainera, ez dute ixil-ixilik itzultzeko asmorik, gaiteroak Madalenen zain edukiko baitituzte beraien soinu paregabearekin sarrera ederra pla-

zan egin dezaten.

Astearte-iñotean herrian bertan egingo da puxka-biltzea, goizeko 10etan hasita eta arratsaldeko 5etatik aurrera, iñauterietako ikuskizun nagusia: Zahidantza. Honen ondoren, disfraz, alaitasuna eta eromena bihurtuko dira protagonistak aurre-



ko ordutako folkloreak eta ohitura zaharrak alde batera utziz.

Gai honekin bukatzeko esan, larunbat ilunabarrerako ere ikuskizun ikaragarria prestatu dela. Iazko arrakasta ikusirik, Izaskun Bakerok lanari ekin dio aurtengo ere, eta adin guztietako emakumez osa-

tutako konpartsa ibiliko da herrian barrena.

Mendien antolatzea

Nafarroako Gobernuak osorik ordainduko du Onura Publikoko Katalogoan dauden mendien antolatze proiektua egitea. 5.142.000 pezeta jasoko ditu Herriko Etxeak.

ARESO

Asteburuko ihauterien aurrerapena eskolan

Ostiralean hainbat ekitaldi egingo dituzte

JUANA M^a SAIZAR

Ihauteri jaiak direla eta eskolan ihauteri eguna urtarilaren 31n ospatuko da. 9,30etatik 11etara Ihauterik girotzeko hainbat ekintza egingen dira (mozorroak prestatu, abestu...). 11etan txistorrada haurrentzat eta 11,30etatik 1etara jokuak eskola in-

guruan. Arratsaldean, denak mozorrotuta, *al-txoraren bila* ibilikodira. Era honetan, asteburuan herrian ospatuko diren ihauteriei hasiera emango zaie.

Mus txapelketa

Urteroko mus txapelketak martxan daude bi elkartetan. Larrea elkartean bukatu berri

dute eta Josetxo Onsalo eta Miguel Eraso suertatu dira txapeldun. Pake-Toki elkartean orain jokatzeko ari dira, eta hauen emaitzen berri hurrengo TTIPI-TTAPAN emango dugu.

Ingurugiroa eta eskola

Eskolak 155.000 pezeta jaso du Nafarroako



Eskolako neska-mutikoek ihauteriekin lotutako ekitaldiak izango dituzte ostiralean

Gobernuko Ingurugiro sailetik "Zuhaitza eta ura protagonista bezala" proiektuarengatik. Dirulaguntza hau Ingurugiro Hezkuntzarekin lotutako ekitaldiei ematen zaie.

Sokatira taldea

Sokatira taldeak gogor ekin dio aurtengo denboraldiari. Euskal Herriko txapelketako finalerako ailegatzeko lanean ari da eta emaitza onak lortuz, gainera.

Etxeak berritzeko 34 espediente tramitatu ziren iaz Leitzaldean

Hamabi Leitzan, hiru Goizuetan, bi Areson eta bat Aranon

JOSEBA AZPIROZ

Etxeen berrikuntzarako dirulaguntzak tramitatzeko Leitzaldeko bulegoan, 34 espediente tramitatu dira joan den urtean. Bulego honetan Larraun, Lekunberri, Araitz, Betelu, Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko eskaerak tramitatzen dira. Denetara, 150 milioiko obrak egin dira, 23.800.000 pezetako prestamoak lortu dira eta 35 milioietako dirulaguntzak.

Arano, Areso, Goizueta eta Leitzako datuak ondoko koadron ageri dira.



Herria	Eskaerak	Aurrekontua	Maileguak	Dirulaguntzak
Arano	1	8.397.971	6.550.417	1.847.554
Areso	2	4.049.700	0	1.133.916
Goizueta	3	15.196.416	5.134.770	3.810.206
Leitza	12	68.204.976	0	15.520.056
Denetara	18	95.849.063	11.685.187	22.311.732

Emakumeentzat ikastaroak

Aurreko urtean bezala, aurten ere Udala emakumeentzat ikastaroak bideratzen saiatuko da. Ikastaroren bat antolatu nahi izanez gero lehenbailehen memoria bat aurkeztu behar da Udaletxean, ikastaroaren xehetasunak adieraziz (aurrekontua, orduak, irakasleak...).

flash

Ikurriña eta olentzero erreak

Hilaren 19an, goizaldean, Torreako ikurriña erretzen saiatu ziren "ezezagunak". Urte Berriegunean berriz, plazako Olentzeroari su eman eta osotara erre zuten. Lekunberriko eta Beteluko Olentzeroak ere erre zituzten. Hau salatzeak, aurreko ostiralean, kontzentrazioarako deialdia luzatua zen.

Nortasun Agiria berritzera

otsailaren 7an eta 21ean etorriko dira Iruñetik.

Sarriora

bisita egin zuen Miguel Sanz lehen-dakariak hilaren 16an.

Aterpe arriskutsua

Nafar Gobernuako injineru baten informaren arabera, 20 km.ko elurteekin edo orduko 50 km.ko baino abiadura handiagoko haizearekin arriskutsua da aterpe hau erabiltzea. Hori dela eta, aterpea itxi egin da, e-dukтура konpondu eta sendotu arte. Joseba

Nekazal Eskola zena moldatzeko lanak Sagastibeltzak egingen ditu

Gregorio Sagastibeltza herriko eraikuntza enpresak egingen ditu Nekazal Eskola zena moldatzeko lanak 4.887.454 pezetaren truke, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza zuzendari nagusiak erabaki duenez.


Material-biltegia egin, haurrendako joko-

en instalazioa, patioaren itxiduraren moldaketa, urak biltzeko saretoa jarri eta pertsiar-nak aldatuko dira.

Haur eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloa bertan emateko moduan moldatzen ari dira ikas-tetxea eta, honenbestez, eraikuntza nagusian leku gehiago behar da.



muñeca de Trapo



IRUN

Luis Mariano, 35
Tel.: (943) 62 52 55

Elizatz

ERLOJUTEGI
BITXITEGIA

Nafarrentzat
prezio bereziak

Landetxe Enparantza © 943.492698 OIARTZUN



Basa Kabi

Betiko platerrez gain, bereziak ere eskaintzen dizkizugu. Eta ezkontzeak pentatu baduzu, harrituko zaitugu!

Tel. 510125 • Faxa: 610965
LEITZAko gaina



LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura Orokorrak

Bera © 630735
Irun © (943) 622305

MOZORROAK

- ✓ SALMENTA eta ALOKAMENA
- ✓ Nuevas Tintorerías delakoarengatik garbiketa bermaturik
- ✓ Eranskinak
- ✓ Makilaje

FIESTA

Tfnoak 908 778613 • (948) 15 32 97
Alzanía Ibaia Kalea, 16 beheera • Azpilagaña (Euskadiko Kutxaren ondoren)

Ortzegun Gizen, Oilar-dantza, Egun ttuntun... gainean ditugu iñauteriak

Lekarozen, bertzalde, aterpea moldatzeko lanetan segitzen dute

JOSEBA IGARABIDE

Erratzuko Damak, Arizkungo Hartza... eta hainbat herrietako pertsonaiak ikusteko eta iñauteri bestan parte hartzeko aukera izanen da egunotan. Aspaldiko ohiturak berrituko dira, baina berriki sartutakoak ere ez dute hutsik eginen: igandean danborrada egiten da azken bolada honetan Elizondon eta orga apainduak ere karrikarutoko dira, noski.

Otsailaren 7 eta 8an, Ortzegun eta Ortzirak Gizen eguna ospatuko da. Egun hauek izen ezberdina jasotzen dute herri bakoitzaren arabera: Egun ttuntun, Orakunde, Oilar-dantza... Erratzun, aitzineko bi larunbatetan ere eskean ibiltzen dira.

Lekarozko aterpea

Nafarroako Kiroleta Gaztedi Institutuak Lekarozen gazteendako aterpea eraikitze lanak egiteko udalaren obra baimena jaso du. Lanen aurrekontu osoa 250 milioi bat pezetakoa da. Dagoeneko zenbait proiektu idatzi eta instalazioaren legalizazioa lortu da eta urte osoan funtzionatzen ariteko moduko leku goxoa egokitu nahi du-



Baztan ikastolako 6. mailakoak eskiatzen

Baztan ikastolako seigarren mailako ikasleek Eskolako Ikasleendako Ipar Eskiko hamairugarren kanpainan parte hartu dute.

te. Horretarako mantenimendu lan tiki batzuk eginak dituzte dagoeneko. Halere, oraindik zenbait proiektu gauzatu behar dira, aurrean bertan lan guztiak bukatu nahi baitituzte.

Ikastaroak

Balleko Etxeak 1997ko zenbait ikastaro antolatze eskatu dio Nafarroako Gobernuari. Zehazki, Elizondon pintura eta zaharberritzea eskaini nahi dira eta Almandoz, Arizkun eta Erratzun artisautza ikastaroa.

Guardiazibilaren jarrera aztertzei Gobernu Delegatuarekin bilduko dira Balleko Etxeko udal ordezkariak

Balleko Etxeko hiru alderdietako udal ordezkariak Gobernu delegatuarekin bilduko dira, abenduaren 14an Erratzu inguruan guardiazibilak jarritako kontrol batean gertatutakoak argitzeko.

Mozioa HBk aurkeztu zuen eta idatziak zioenez, "kontrolean matel hezurrekoak, bul-tzadak, erasoak, mehatxak eta interrogatorio luzeak sufritu behar izan genituen. Zenbaiti beren armekin burura

apuntatu zioten". Ondoren zinegotzia eta parlamentaria den Xotero Etxandi ere mehatxatu zuten. HBk jarrera hauek gogor salatzea eta norbaitek salaketa judiciala egin nahi izanez gero, laguntza osoa eskaintzea eskatu zuen. Eskara hau ez zen onartu, bai ordea Eak aurkeztutakoa, HBren kontrako botuarekin eta UPNren abstentzioarekin. Honela, Gobernu delegatuarekin biltzea erabaki zen.

flash

Mendi probetxamendua

Gañekola inguruko herrilurrean dauden 947 haritz amerikaren oihan probetxamendurako enkante publikoa zabaldu du Balleko Etxeak. Hasierako prezioa 12.476.210 pezetakoa da eta proposamenak otsailaren 5a baino lehen aurkeztu behar dira.

Jubilatuak bestak

Urtarrilaren 22an, Baztangoizako jubilatuak beraien urteroko besta ospatu zuten Arizkungo Etxeberria jatetxean. Otsailaren 13an berri, Elizondo, Elbete, Lekaroz, Gartzain eta Iruritaoren txanda izanen da.

Ecolan enpresak

Baztan eta Malerreka hondakinei buruzko ikerketa egiteko aurkeztu duen aurrekontua 2.850.000 pezetakoa da. Balleko Etxeak dirulaguntza eskatu dio Nafarroako Gobernuari.

Igerilekuen

mantenimendu eta garbiketa zerbitzua kontratatze lehiaketa publikorako deialdia luzatu da. 1997 eta 1998ko udara garietan sarreren kontrola eta ostaturaren martxa eramatea ere betebeharren barnean daude.



Pierresenea

OSTATU - JATETXEA

Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa

Iturriotz Auzoa • 592043 • OROÑOZ-MUGAIRI

ARROPA DENDA



CERVANTES

HELVETIA SEGUROS



Era guzietako aseguroak
Eskatzen aurrekontuak
Juana M. Urrutia

Erronkari Gasnaren Jatorri Izendapenaren hauteskundeak

Urdazubiko Justo Ramon Arburua artzainen ordezkarietako bat izanen da

JOSEBA IGARABIDE

Urtarrilaren 22an Erronkariko Gasna Jatorri-Izendapena Kontseilu erregulatzaileraren hauteskundeak. Iruñean eta Irurtzun bezalaxe, Elizondoko hautes-mahaia paratu zuten. Zortzi partaide ditu kontseilu honek: lehendakari, lehendakariordea, artzainen aldetik bi aholkulari, bertze bi esnegileen aldetik eta bi Nafarroako Gobernutik, nahiz eta hauek ez duten botoa emateko eskubiderik. Nafarroan 420 artzain dauka, Erronkariko izendapenera lotuak.

Artzainen ordezkarietza lortzeko, EHNE eta UAGN sindikatuek aurkeztu ziren eta bi ordezkariak UAGNk eskuratu zituen: 10.000 litro baino gutiago produzitzen duten artzainen ordezkari Urdazubiko Justo Ramon Arburua izan da aukeratua (Elizondoko bozketan, botu eskubidea zuten 237 artzainetatik 126k bozkatu zuten; 69 UAGNko ordezkariaren alde, 56 EHNEkoaren alde, 1 baliorik gabe) eta 10.000 litro baino gehiago ematen dutenen artean, Olondrizko Jose Erneta (Elizondoko, 16 artzainetik UAGNk 9 boza, EHNEk 3). EHNEko hautagaiak Azpilkueta Juan Jose Irungarai eta Leitzako Juan Bautista Alduntzin ziren.



Mendizaleen omenaldia

Argazkia joan den urteko abenduaren 29an ateria da Autzako kaskoan. Urtero, azken bi igandetan, mendian hildako baztandarrei omenaldia eskaintzen die Baztango Mendigoizaleak elkarrekin: Gerardo Plazari Legateko gainan eta Peio eta Ramoneri Autzan.

Argazkia: Ixabel Aleman

San Anton Eguna

Europear ospatu zen Elizondoko San Anton eguna. Esne-behiari zegokion zenbakia 14.175 izan zen eta Arizkongo Danborienea okindegian salduzen eta Iparraldera gan da, irabazlearen izena oraindik ezaguna ez bada ere. Zerria Doneztebeko Francisco Andueza rentzat izan zen (3.755), bi bildotsak Braulio Elizetxe amaiurtarrarentzat (1.768) eta magra Eskisasoi jatetxeko Garmendia Galarregi familiarentzat (2.779). Erratzuko berrogei bat emakumek, beraien aldetik, elkarrekin ospatu zuten eguna, bazkaria eginez.

flash

Arizkongo frontoiaren

aitzinaldea pintatzeko aurrekontua onartu du Balleko Etxeak: 93.125 pezeta (gehi BEZa).

Udal ordezkaria San Frantzisko Xabier eskolan

Felix Santiago Ustarroz zinegotzia izanen da udal ordezkaria Elizondoko San Frantzisko Xabier ikastetxeko Eskola Kontseiluan.

Bosniatik Elizondora

itzuli zen urtarrilaren 18an Jose Manuel Nazabal, Legasa eta Narbartekeko apezka. Baztanen bildutako laguntza (elika-gaiak, arropak, oinetakoak eta jostailuak, batez ere) banatzera joana zen apezka Bosniara.

Txotx!

Euskal Herriko sagardotegiek zabaldu dute denboraldia eta Lekarozko Larraldeak ere ireki ditu bere ateak.

Erratzuko

berrogei bat emakumek elkarrekin ospatu zuten San Anton eguna, bazkaria eginez.

BODEGAS ERRASTI, S.L.

Bodegas Gailur

ARABAR ERRIOXAKO ARDOAK
GETARIAKO TXAKOLINA

Zonarako banatzailea
TXOPORRO Ardoak

M. Azpilkueta, 6 • ELIZONDO

© 58 02 78



KALE NAGUSIA 4
TEL ETA FAX: 45 08 25
DONEZTEBE

SANTIAGO KALEA 40
TEL: 58 01 55
ELIZONDO

ZURE ARGAZKIAK
ORDU BATEAN
EGITEN DITUGU

IA 100 URTE
KALITATEA ETA
PROFESIONALITASUNA
ESKEINIZ

DANBORIENA

OKINDEGIA
GOZOTEGIA

© 453403 - ARIZKUN

M^{re} Dolores Miñana

TOPOGRAFOA

NEURKETA • PLANOAK

Lur neurketak, luberriak
Plantazioak, etab...

580143 - 989.445986
Santiago 68, 3. esk. ELIZONDO

BAZTAN

171 milioi beharko dira bideak moldatu eta karrikak zolaberritzeko

125 milioi Nafarroako Gobernuak ordainduko ditu

Rafael Gurrea, Nafarroako Gobernuako Toki Administrazio kontseilariak, 1996rako Herrietako Azpiegitura Lanen Plangintzaren barnean, zenbait bide eta lau herriko karriken zolaberritze lanak ordaintzen laguntzeko foru agindua sinatu du. Lan hauen aurrekontua 171 milioitik goitiko da eta Iruñetik ia 125

milioi pezetarekin lagunduko dute. Gainerakoa ordaintzeko mailagunak eskatuak ditu da goeneko Balleko Etxeak.

Bideak moldatzeko 91 milioiko inbertsio egin beharko da, horietatik 69 Nafarroako Gobernuak ordainduak. Alde batetik, euriak hondatutako bideak moldatuko dira. Lanen kos-

tua 9 milioi terdikoa da eta Toki Administrazio sailak ia 7 milioi emanen ditu. Bertzetik, Amairuko Erdiko-bidea, Azpilkuetako Zuaztoi auzoa, Elizondoko Iturriaga auzoa eta Erratzuko Apate zubia moldatuko dira eta Iruñitako Baigorri auzoan pareta bat egingen da. Guztira 81'27 milioi beharko dira eta Nafarroako Go-

bernuak 59'73 jartzeko konpromezua hartu du.

Lau herriko karriketan zoladura jartzeko lanek, berriz, 80'75 milioi pezetako inbertsioa beharko dute, 58 milioi inguru Iruñeko Gobernutik ailegatuko direlarik. Zehazki, Azpilkuetako Apaioa eta Urrasun auzoetako espaloiak egingen dira eta horrekin batera, Erratzuko Go-

rostapolo auzoa eta Elbeteko Karrikatxar zolaberritzeko asmoa dago.

Zolaberritzea ormi-goiarekin egingen dute normalean, Gorostapolon ezik, hemen harriarekin egiteko intentzioa baitago. Saneamendu eta euri-urak biltzeko sarearen zatiren batzuk ere berrituko dira herrietan.

ZUGARRAMURDI

Hogeita hemezortzi zaldun herriratu ziren hilbeltzaren 12ko zaldi erakusketan

Xareta lurraldean bizi edo lan egiten dutenentzat ikastaroak antolatuko dira

MARGARI ETA KORO

Hilbeltzaren 12an seculako zaldi erakusketan izan ginuen herrian. Iparraldeko ACBE elkarteak antolatu zuen Saratik Zugarramurdinako zaldizko ibilaldia. Benta Beltza-Lizuniaga-Usategiak-Atxuria-Urbia egin ondoren, bazkaltzera 38 zaldun agertu ziren herrian. Haien artean 8-10 urteko haurra eta 70en bat urteko amaxia zeuden. Gero Azketako aparkalekuan lotu zituzten zaldiak eta arratsalde guzian haiek ikusteko aukera izan ginuen. Zaldunak Zugarramurdi, Sara, Bera, Kanbo, Uztaritze, Zudaire eta baita Bordetik etorritakoak ziren.



Herriko zaldunak: Andres, Iñaki, Juan Mari, Ramontxo, Teofilo, Xan eta Joaquin

Ikastaroak

Xaretarak elkarteak jakitera eman du 1997an ikastaroak antolatu behar direla Xareta lurraldean bizi edo lan egi-

ten dutenentzat. Ikastaroak dohainik izanen dira (Nafarroako Gobernuak eta Akitaniako Adefpok ordainduak) eta jendea zein ikasta-

rotan interesatuta dagoen jakiteko, orri bat betetzea eskatzen da, gero Menta jatetxean edo Fani Bergarari itzultzeko. Proposatzen

direnak hauek dira: Hizkuntzak, Informatika, Ondare arkeologikoa, Lurraldeko problematika eta Lurraldeko antolaketaaren aspektu juridikoa.

Bideak moldatzeko laguntza

1996rako Herrietako Azpiegitura Lanen Plangintzaren barnean, euriaren eraginez kalte-tutako bideak moldatzeko lanak ordaintzen laguntzeko foru agindua sinatu du Nafarroako Gobernuak Toki Administrazio sailak. 15 baserrietara doazen bortz bide dira hondatutakoak eta hauek moldatzeko 3.350.000 pezeta behar dira. Nafarroako Gobernuak 2.200.000 pezeta emanen ditu.

Urteko agiantzak eskaini zituen Herriko Etxeak

Elkarteen lana eskertu zen

JACQUELINE ETA MIXEL

Udalaren agiantzak urtarilaren 10ean iragan ziren. Herriko Etxeak gomituak zituen herriko elkarten arduradunak bere urteko agiantzen eskaintzeko. Kari hortara auzapezak eskertu ditu herriaren biziartzeko lanean ari diren guztiak eta nahi ukan du molde berezi batez azpimarratu jende horiek, beren denborarik kondatu gabe emaiten dutela eta hauen ekintza baitezpadakoa dela herri batentzat.

Gaztetxetik zombait berri

Urtarrilaren 10ean bere biltzar nagusia iragan zuen, arduradun berriak aukeratuz: Lehendakaria Jerome Barrene, diruzaina Maitane Ithurria eta idazkaria Martina Goyetxe. Bertzalde, Presoak Euskal Herrira kanpainan sartuz, urtarilaren 31n, arratseko 8etan, informazio gaua antolatu du: bideoa eta preso ohi batzuk hor izanen dira beren lekukotasuna emaiteko. Ondotik, talo jatea izanen da.

Mus solas

Herriko Etxeko edantegiko mus lehiaketa otsailaren 7an hasiko da. Urtarrilaren 18an Izarra Rugby antolatu mus lehiaketan 22 bikotek parte hartu zuten. Txapeldun: Martin Goienetxe eta Jean Ahiotzbehere. Txapeldunorde: Manex Bergara eta Beñat Etxegarai.



Ihauteriak 8 eta 9an

Larunbatean auzotan ibilaldia. Arratsean Herriko Etxeko edantegian giro bero beroa Kristina eta Amaia trikitilariekin. Igandean plazan ibilaldia, dantzak eta jauziak, San Pantzarren auzia. Otsailaren 14an Omordian, 9etan, kontzertua: *Desastre naturala*, *Rigor Mortis* eta azken orduko talde bat

Bertsolariak

Otsailaren 16an Omordian. Hunen antolakuntza Olhain ikastolari doakio Euskal Kultur erakundearen sustengarekin. Ietan herri bazkaria eta 4etan saioa: Alkhat, Amuriza, Peñagarikano, Laka, Lizaso eta Sorozabal.

ESKARIAK PAC 1997

Alor eta Aziendentzako Laguntza Eskariak



Eskaria egiten laguntzeko zerbitzu espezializatua dugu

Rural Kutxa-ren esperientziarekin

Laborari eta abeltzainen sektorean espezializatuen dagoen erakundearen babesarekin.

Sistema automatizatua

Bitarteko informatiko modernoekin eta Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin.

Nekazari eta abeltzainei zuzendutako laguntzak

Zenbait labore-alor bultzatzeko eta baita ardi, ahuntz eta behi-haragi produktoreendako eta behi amak mantentzen dituztenendako ere.



NAFARROAKO RURAL KUTXA

EZKONTZAK

JAIO TZAK

HERIOTZAK

